# 'Chicago', ama zenaren bila abiatutako bidaia

Aitziber Etxeberriak bere azken eleberria aurkeztu du, emakumeen «aldarrikapena» eta giro historikoan jositako intriga liburua

**IÑAKI IZQUIERDO**
Donostia

Chicago. 1975. Gerra hotza. Vietnam. Arrazakeria. Energia atomikoa. Eskubide zibilak. Aitziber Etxeberriak bere azken nobela aurkeztu zuen atzo Donostian. 'Chicago' (Erein) osagai horiekin osatzen den bidai literarioa da. Ingriden ikerketa bere ama izan zenaren bila, hain zuzen. Idazle zarauztarrak 2020an plazaratutako 'Olivetti'ren bigarren zati bezala hartu daiteke, baina 'Chicagok' irakurketa propioa dauka.

Elisak Donostiatik Chicagora ihes egitea erabakitzen du 1975ean. Frankismo garaia da, eta itota sentitzen da. Ama eta emaztea da, baina baita zientzialaria ere. Mundu berri baten bila abiatzen da eta AEBetako Energia Departamentuarentzat hasten da lanean. Laster batean konturatuko da ez duela amerikarren lan egiteko modua gogoko, are gutxiago energia nuklearraren gaineko gobernuaren politika, nahiz eta bera energia nuklearraren erabileraren aldekoa izan. Zalantzak sortzen zaizkio eta, aldi berean, Chicagoko giro soziala ezagutzen du. Black Panthers mugimendua, tartean. Hirian bizi den atmosferak garrantzia dauka Etxeberriaren kontakizunean. Eta agerian geratzen da egun indarrean dauden gaiekiko lotura. «Gauza askok berdin jarraitzen dute –uste du idazleak–. Arrazakeria, potenzien arteko gerra... Historian gaiak errepikatzen dira, eta interesagarria izan daiteke nondik gabiltzan jakiteko, nondik gatozen eta nora goazen irudikatzeko».



Aitziber Etxeberria, atzo Donostian.

**Chicago**
Aitziber Etxeberria

***Estiloa:*** Eleberria.
***Argitaletxea:*** Erein.
***Orr.:*** 224.
***Prezioa:*** 22,50 euro.




Emakumeak dira protagonistak eta emakumeei buruzko nobela da. «Aldarrikapena da. Askotan, itzalean, bizitza arruntentan mugatuak ikusi izan dira. Baina, zientzian ere lan handia egin dute emakumeek, ez soilik Marie Curie, beti aipatzen den bakarra, besterik ez balego bezala. Farmazia ikasi nuen eta ez dut gogoratzen unibertsitatean irakatsitako emakume izen bakar bat ere. Beti oztopoak. Orain aurrerapausuak eman dira, nahiz eta berdintasunik ez dagoen. Pena da, baina gutxik ezagutzen dituzte emakume zientzialariak».

Jakinmina da 2009an Ingridi bultzatzen diona ama zena ezagutzeko ikerketa abiatzeko. Eritmo biziko kapitulo motzez jositako intriga liburua idatzi du Etxeberriak.

# Zack Keim lleva su folk-rock de raíces americanas a Kutxa Fundazioa Kluba

El músico de Pittsburgh presentará hoy en Tabakalera su mezcla de garage, folk y rock clásico estadounidense

**E. ARANDIA**
San Sebastián

El cantautor estadounidense Zack Keim actuará este sábado en Kutxa Fundazioa Kluba dentro de su nueva gira europea. El concierto, organizado por Dabadaba, comenzará a las 20.00 horas en la sala ubicada en Tabakalera, que este año celebra su décimo aniversario con una programación especial.

Originario de Pittsburgh, Keim se dio a conocer como líder de la banda de garage rock Nox Boys antes de emprender su carrera en solitario de música folk rock de raíz estadounidense, garage melódico y pop clásico de inspiración sesentera. Sus canciones combinan guitarras luminosas, armonías cálidas y una producción de aire analógico que remite tanto al rock alternativo norteamericano como a la tradición del songwriter clásico, con referencias que evocan a Bob Dylan, Big Star o The Byrds.

La cita supondrá además el debut del músico en Donostia, aunque será la cuarta ocasión en la que actúe en España con banda completa. En los últimos años, Keim ha consolidado una creciente base de seguidores en Europa gracias a una trayectoria construida sobre las giras y discos donde combina guitarras luminosas, melodías clásicas y una estética cercana al rock alternativo norteamericano de los setenta.

Sus directos le han llevado a compartir escenario con artistas como Peter Case, miembro de The Nerves y The Plimsouls; Calvin Johnson, fundador de K Records y referente del indie estadounidense; Evan Westfall, integrante de Caamp; y el cantautor Matt Costa.

En esta gira, el músico volverá a actuar acompañado de banda completa y contará de nuevo con Jordan Clark, guitarrista vinculado a grupos como The Frights y al proyecto de Swami John Reis. Las entradas continúan a la venta al precio de 15 euros anticipada y 18 euros en taquilla.